

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Bezeroekin harremanak atalean aipatu dugun bezala, gure ezaugarri nagusietako bat bezero eta familiekiko **harreman zuzena** izatea nahi dugula da, beraz, komunikazio kanala zaindu eta landu beharko dugun zeregina izango da.

Gure enpresaren zerbitzuen barruan ez da produktuen salmenta sartzen, hortaz, momentuz ez dugu banaketa kanalik planteatzen, gure eskaintza zabala presentziala eta unekoa izango baita.

Ezagutzera emateko eta marketing lanak egiteko teknologia berriak erabiltzea interesgarria dela uste dugu, ezin dugu ahaztu gaur egun komunikatzeko dugun tresnarik garrantzitsuenak direla eta beraz, gu ere horrelako sareak erabiltzea ez dugu baztertzen. Hauen artean; Instagram, Twitter, Facebook eta interneten sortutako webgunea erabiliko genituzke.

Udaletxeekin harremana zuzeneko izango da, beraiekin hitzordua jarri eta gure berri eman ahal izateko. Bilera horretarako, hitz egingo dugunaz gain, gure inguruko informazioa ere helaraziko genien, horretarako triptikoak, power point presentazioak... erabiliz.

Behin martxan jartzean eta herrian gure ekintzen berri emateko, tresna tradizionalagoak ere erabiliko genituzke. Alde batetik herrietan zehar kartelak jarriko genituzke eta bestalde, herrietako eskoletara joango ginateke, haurrei zein gurasoei gure zerbitzuaren informazioa helarazteko. Etxebizitza guztietara ere triptikoak bidaliko genituzke. Ahoz ahoko komunikazioa egun oraindik indarra duela uste dugu, beraz, herritarren ahoetan egotea ere gure asmoetariko bat da.

Aldi berean, beste elkarte batzuekin aliantzak egitea ere interesgarritzat jotzen dugun ideia horretatik, baliteke zenbait momentutan gure zerbitzua zeharka talde edo erakunde hauen bitartez ematea, beti ere gu presente eta zuzeneko harremana helaraziz.

Hortaz, gure esku ditugun komunikazio kanal guztiez baliatuko gara gure bezeroekiko harremana ahalik eta zuzenen eta konstanteena izateko. Hala ere, proiektuak aurrera egin ahal kanal bakoitzak duen eraginkortasunaren arabera, tresna batzuk edo beste batzuk erabiltzea erabakiko dugu.